



UKRAINAKO INBASIOAK DESPLAZATUTAKOEI HARRERA EGITEKO GIDA

LABURPENA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

1. ALDI BATERAKO BABES-BAIMENA

Aurrez aurre egingo da Polizia Nazionaleko polizia - etxeetan:

- ARABA
Oñati kalea, 17
Gasteiz
Tel.: 945 209 633
- BIZKAIA
Gordóniz kalea, 8
Bilbo
Tel.: 944 709 149
- GIPUZKOA
Urumea pasalekua, 17
Donostia
Tel.: 943 449 809

Nola egin eskaera?

Aurretiko hitzordua izatea ezinbestekoa da.

Eskatzeko esteka:

<https://sede.administracionespublicas.gob.es/icpplus/index.html>

“Ukraina, aldi baterako babes – baimena” izeneko fitxa hautatu behar da.

Dokumentazioa

- Bidaia-dokumentua eta/edo nortasun-agiria
- Zure nortasuna eta nazionalitatea egiazta dezakeen beste edozein agiri.
- NANaren neurriko argazkia, hondo zuriarekin.
- Adingabeen kasuan, familia-lotura egiaztatzen duen dokumentazioa (jaiotza-ziurtagiria).

Aldi baterako babesaren ebazpenaren jakinarazpena deskargatzea egongo da, Atzerritarraren Nortasun Zenbakia (AIZ) eta espediente-zenbakia esteka honetan sartuta:

<https://www.citapreviadnie.es/citaPreviaDni/IndexDesplazados.action>

Ebazpena lortu ondoren, berriz eskatu beharko da hitzordua Polizia Nazionalean Atzerritarren Nortasun Txartela (AIT) lortzeko.

Ukraniako identifikazio-
agiriei buruzko
gaietarako, interesdunari
gomendatzen zaio
harremanetan jartzea
**Ukrainak Madrilen duen
Enbaxadako
Kontsulatu**en Atalarekin.

Telefonoak: 917 489 360
917 489 378
917 489 382

Larrialdiak: 620 641 324

E-maila:

emb_es@mfa.gov.ua
consul_es@mfa.gov.ua

Zer-nolako Bizileku-baimena emango didate?

Aldi baterako babesaren onuradunei urtebeteko bizileku eta lan-baimena emango zaie.

Aldi baterako babesa eta bizileku- eta lan-baimenak automatikoki beste urtebetez luzatuko dira lehenengoa amaitzen denean, betiere aldi baterako babesa deklaratzeko eskumena duen organoak amaitutzat ematen ez badu.

Salbuespenez, beste urtebetez luzatu ahal izango da.

Nazioarteko Babesa eska dezaket?

Desplazatua ezin bada Ukrainara itzuli jazarpena jasateko beldur delako bere iritzi politiko zein erlijiosoengatik, edo etnia, nazionalitate, orientazio sexual edo genero-identitateari lotutako arrazoiengatik, edo lanbideagatik, edo genero-indarkeriaren biktima delako etab., orduan nazioarteko babesa eska dezake. Aldi baterako babesa ez da bateraezina nazioarteko babes-eskaerarekin.

Intereseko telefonoak:

BILTZEN

Aholkularitza juridikoa,
Gizarteratzea eta
Kulturarteko Bizikidetza
Euskal Zerbitzua

▪ Erabiltzaileak:

Tel.: 900 840 890
asesoria@euskadi.eus

▪ Profesionalak:

Tel.: 944 001 809
juridika@biltzen.org

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera,
9:30etatik 14:00etara.

2. ERROLDA

Gerra dela-eta desplazatu egin diren eta aldi baterako babes-sistemari atxikitako pertsona ukrainarrak bizi diren udaletxean erroldatu daitezke, honako identifikazio-agiri hauek aurkeztuz:

- Edonola ere, bi gurasoen baimenik ez badago erroldatzeko, nahikoa izango da haietako batek edo eskaera egiten duen arduradunak erantzukizunpeko adierazpen bat sinatzearekin

- Indarrean dagoen pasaporte edo Polizia Nazionalek izapidetutako dokumentazioa (aldi baterako babesa eskariaren frogagiria edo honen aldeko ebazpena).
- Heldu arduradun (ez du zertan gurasoa izan) baten laguntza duten 18 urte baino gutxiagoko pertsonen kasuan, Polizia Nazionalek izapidetutako dokumentazioa (aldi baterako babesa eskariaren frogagiria edo honen aldeko ebazpena) eta, kasu honetan, adingabeak laguntzen duen pertsona Polizia Nazionalean adingabekoentzako aldi baterako babesa aurkeztu zuen pertsona berbera izan behar da.

Eusko Jaurlaritzaren laguntzak (12., 13., 14. eta 15. puntuak) jasotzeko, ezinbestekoa da erroldatuta egotea edo hala eskatu izana.

3. EUSKAL OSASUN-ZERBITZUA

Aldi Baterako Babesaren eskaria behin aurkeztuta, desplazatuek (TIS) Osasun Txartel Indibiduala edukitzeko eskubea dute. Txartela honek 2 urteko iraupena izango du, eta espainia osoan izango du balioa.

Aurretik arreta medikoa behar bada, 6 hilabeterako Aldi Baterako Osasun Laguntzarako Dokumentu berriztagarri bat izapidetuko da, baliozkoa bakarrik Euskadin. Nolanahire, asistentzia medikoa bermatuta dago.

TIS txartela osasun zentroan eskatzen da, honako dokumentazio hau aurkeztuta:

- Aldi baterako babes eskatu badute, eskaera aurkeztu izanaren frogagiria edo aldi baterako babes emateko ebazpena
- Pasaporte, Ukrainako agiri nazionala edo Ukrainako bizileku-baimena,
- Errolda-agiria (baldin badu).

4. EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

Ukrainatik desplazatutakoek Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzuan) enplegu-eskatzaile moduan eman dezakete izena, babes eskariaren frogagiria edo honen aldeko ebazpena lortu eta 24 ordu geroago.

Hala ere, Lanbidek eskainitako ekimen formatiboetan izena ematea izango dute (kasu honetan, pasaporte baina ez da aurkeztu behar).

5. EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMA

Gomendioa da eskolatzea bi aste baino gehiago ez atzeratzea, familia bakoitzaren bizilekuaren egoera argitu arte.

Eskolatzea eskatzeko izapideak edozein ikastetxetan egin daitezke.

Gomendagarria bada ere, eskolatzeko ez da beharrezkoa errolda-ziurtagiririk aurkeztea.

<https://www.euskadi.eus/sistema-educativo-vasco-informacion-a-las-familias/web01-a2hikast/es/>

6. EUSKAL GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA

Gizarte Zerbitzuek, gizarte-erakundeekin batera, ohiko erreferente gisa jardungo dute lekualdatutako pertsonak gizarteratzeko.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak dira Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren sartzeko atea.

Sistema honetatik Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eskura daitezke, baldintzak betez (besteak beste, 6 hilabeteko erroldatzea).

Hurbilen dauden gizarte-zerbitzuetako helbideak hemen aurki daitezke:

<https://www.euskadi.eus/directorio-servicios-sociales/web01-a2gizar/es/>

7. BANKU-ZERBITZUAK

Lekualdatutako pertsonak oinarrizko ordainketa-kontu bat edo kontu sozial bat ireki dezakete. Honela kontu korrante baten ohiko eragiketa guztiak doan egin daitezke, hala nola diru-sarrerak, kutzazainetan erretiroak eta transferentziak, baita zordunketa-txartel bat eduki ere, inolako kosturik gabe. Era berean, kontua irekitzeko moduari eta ixteko moduari buruz informatzea komeni da, baita ezaugarriak, komisio motak eta doakoa noiz izan daitekeen ere.

Banku-kontu bat ireki behar duten pertsonak banku-sukurtsaletara joan behar dute, aldez aurretik hitzordua eskatuta, eta Ukrainako pasaporte, nortasun-txartela edo AIT aurkeztu beharko dute (Polizia Nazionalak emandako agiria). Sukurtsal batzuetan arreta telefono bidezko itzulpen-zerbitzuaren laguntza ematen da; beste batzuetan, berriz, beharrezkoa da interprete bat egotea. Baliteke diru-sarreraren egiaztagiri bat aurkeztea eskatzea (aurrekontratua, laguntza ekonomikoen kontsezioa).

8. GIDABAIMENA

Aldi baterako babesa eskatzaileek beren gidabaimen ukrainarrak erabili edota espainiar batekin trukatu ahal izango dituzte. Tramite hau egiteko:

- Gasteiz
Gasteiz etorb., 13-15
Tel.: 945 222 058
- Donostia
Julio Caro Baroja
enparantza, 2
Tel.: 943 452 000
- Bilbo
Barroeta Aldamar kalea, 1
Tel.: 944 421 300

9. MASKOTAK

Ukrainatik maskotekin iristen diren desplazatuek lehenbailehen jakinarazi behar diete foru-aldundietako abeltzaintza-zerbitzuei.

Jakinarazpen hori desplazatutako pertsonak berak egingo du zuzenean edo albaitaritza-kliniken bidez. Animalia guztiek pasa behar baitute kontsulta klinika horietatik.

10. HARRERA-SISTEMA (SAPIT)

Gizarteratzeko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak aldi baterako babesa edo asiloa eskatu duten eta beren eta bere senideen premiei erantzuteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonak hartzeko eta gizarteratzeko programa hau eskaintzen du.

Programak 18 hilabeteko iraupena du, eta 24 hilabetera arte luza daiteke kalteberatzat jotzen diren kasuetan.

Programa honek ostatua, gizarte-arreta, laguntza psikologikoa, lan prestakuntzarako laguntzak, lana bilatzeko laguntza eta hizkuntza-eskolak eskaintzen ditu.

Programak eskaintzen duen ostatua Espainiako edozein tokitan izan daiteke, familia-loturak kontuan izaten saiatu arren.

LEHEN HARRERA

Oinarrizko premien estaldura bermatzeko, behin-behineko ostatua barne, lehen harrerako behin-behineko plaza batera bideratu ahal daiteke.

Aldi baterako babesaren edo asiloaren eskaera geroago egin daiteke.

Euskadin Naizoarteko Babeseko SAPIT-erako sarbidearen kudeaketa CEAR-ek kudeatzen du:

- Gasteiz
Ferrocarril, 8
Tel.: 945 266 805
- Donostia
Amezketarrak kalea, 3
Tel.: 943 242 483
- Bilbo
Baiona kalea, 1
Tel.: 944 248 844

11. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Diru-iturririk ez duten lekualdatutak Ukrainarrei zuzenduta dago Onartutako zenbatekoa murriztu edo azkendu egingo da hartzailea bestelako diru-laguntzak edo lanagati diru-sarrerak jasotzen baditu.

Familietan hartutako pertsonen kasuan, laguntza honek harreraretxeko gastuetan eta oinarrizko premiazat jotzen diren beste gastu batzuetan laguntzea du helburu. Hala nola mantenuan, arropan, premia handiko higieproduktuetan, garraioan edo konektibitatean.

- Araba
Vitoria-Gasteizko
Elizbarrutiko Caritas
Tel.: 945 232 850
- Gipuzkoa
Donostiako
Elizbarrutiko Caritas
Tel.: 943 440 744
- Bizkaia
Bilboko Elizbarrutiko
Caritas
Tel.: 747 458 150

12. HARTZEKO TOKIKO SAREA

Programa honek laguntza eskaintzen die pertsona eta familia ukrainarrei gizarteratze-prozesuan, harrera-familien lana osatuz eta lagunduz, talde profesionalen eta harreratalde lokalen bidez. Pertsona eta familia ukrainarrei komunitatean integratzen laguntzeko talde horiek boluntarioek osatzen dituzte.

- Erakunde nagusia:
Ellacuría Fundazioa
Tel.: 747 473 926
- Erakunde laguntzailea:
Bilboko Elizbarrutiko Caritas
Tel.: 747 458 156
- Uribe kostan:
Pertsonalde elkarte
Tel.: 613 007 437
688 625 305
- Donostialdean eta
Gipuzkoako beste eskualdeetan
Loiola etxea elkarte
Tel: 620 92 87 39
- Vitoria-Gasteiz:
San Viator Ikastetxea
Tel.: 685 103 082

13. ESKOLAZ KANPONKO LAGUNTZA

Gizarte-desabantailako egoeran dauden ikastetxe publiko eta itunduetako lehen edo bigarren hezkuntza ikasten ari diren haur eta nerabeei zuzenduta dago. Ukrainako gerraren ondorioz, lekualdatutako haurrak eta nerabeak eta haien amak edo legezko tutoreak hartzen ditu barnean.

- Konektibitatea: Familiako haur eta nerabe bakoitzari dispositibo bana banatuko zaio.

Agintzari

Tel.: 747 419 906

Ordutegia: 9:00etatik
20:00etara, astelehenetik
ostiralera.

aukeraksuspertzen@agintzari.com

Honek eskaintzen du:

- Euskera eta gaztelania (besteak beste) ikasteko laguntza barneratzen duen Eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzuak.
- Familientzako laguntza: Seme-alabekin hezkuntza lanak egiten laguntzea, trebetasun digitalak eta hizkuntza-gaitasunak barne.

14. LAGUNTZA PSIKOSOZIALA

- Txernobyngo bazterte-eremutik gertu bizi diren hauren harrera-familiei laguntza.
- Harrera-etxeei (hartutako pertsoneri eta harreragileei) bizikidetzarako prestakuntza eta laguntza psikosoziala.
- Estres traumatiko edo/eta dolu egoera gogorrei aurre egiten dieten pertsoneri eta familiei balorazioa eta arreta psikologikoa.

Agintzari

Tel.: 944 745 255

688 820 323

688 868 453

berritze@agintzari.eus

Ordutegia: 9:00etatik
20:00etara, astelehenetik
ostiralera.

15. ERREFERENTIK GABEKO ADINGABEAK

Foru-aldundiak arduratzen dira familia-erreferenterik gabe iritsitako adingabeen egoera sozio-familiarraren balorazioa egiteaz, eta beren gain hartzen dute behin-behineko zaintza. Horretaz gain, haurrak eta nereabeak familiarekin batera lekualdatu direnean arrisku-edo babesgabetasun-egoerak detektatzen diren kasuak baloratuko dituzte.

Haurren foru-zerbitzuak

- Araba
acogimiento@araba.eus
Tel.: 945 121 060
- Gipuzkoa
familiaharrera@gipuzkoa.eus
Tel.: 943 112 522
- Bizkaia
ume-infancia@bizkaia.eus
Tel.: 946 082 971
946 082 968
944 067 969

Eusko Jaurlaritzako Familia
eta Haurren Zuzendaritza

adingabeak@euskadi.eus

Bestalde, guraso edo legezko ordezkarien kargura ez dauden adingabeak borondatez hartzen dituzten familien egokitasunaren balorazioa egingo dute, baita harrera egiteko gogoia erakutsi duten beste hainbatena, aldeztatik atzeritar adingabekoen aldi baterako mugimendua helburu duten harrera-programetan parte hartu ez dutenetatik hasita.

16. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Ukrainako gerraren ondorioz desplazatutako emakumeek eta neskatok informazioa eta aholkularitza behar badute emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako gaietan – indarkeria hori bere bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan– edo sexu-askatasunaren aurkako delituren bat pairatu badute, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzuarekin (SATEVI) jar daitezke harremanetan: 900 840 111.

Telefono horrek eguneko 24 orduetan eta asteko egun guztietan funtzionatzen du. Emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako profesionalak ematen dute arreta, doakoa da, eta 51 hizkuntzatan ematen du arreta, besteak beste, ukraineraz eta errusieraz. Arreta berehalakoa izango da, anonimoa, konfidentziala eta doakoa, eta ez du arrastorik uzten telefono-fakturan.

17. LGTBI PERTSONAK

LGTBI kolektibokoak diren Ukrainako desplazatuak, premia espezifikoren bat badute eta beren orientazio edo identitate sexualarekin lotutako gaietan aholkularitza eskatzen badute, Berdindu zerbitzuarekin harremanetan jar daitezke.

ORDUTEGIA: asteartetik ostiralera: 10:00-13:00 eta astelehenetik ostiralera: 16:00-19:00.

- Gasteiz
Ramiro de Maeztu kalea, 3
945 029 079
617 810 471
berdindu.araba@gmail.com
- Bilbo
Ramón y Cajal kalea, 2
946 453 322
617 813 089
berdindu.bizkaia@gmail.com
- Donostia
Mikeletes kalea, 20
943 216 551
688 769 865
berdindu.gipuzkoa@gmail.com